

Hitz higtuak, zapata-zolak bezain



© Xabier Galarreta

Iñaki Kijerari (1961-1979)

Zapata-zolen antzera higatutako hitzak, den-dena esan nahi dutenak, eta hainbeste esaten dutenak, non, azkenean ez baitute deusik esaten.

Gustatuko litzaidake nire Tabako-denda hemen aurkitzea, nahiz-eta Lisboa ez izan (olerkari onak badauki bilatzen, ez besteen etxean, berean baizik).

Bilatzen dudan Tabako-dendak hemen behar du izan, herri txiki honetan.

Leku bat non begirada erlaxatzen baita, eta zu zeu izateari uzten diozu, zarena zarelarik, aurreiritzirik gabe, albo batera ezer utzi gabe.

Hitzak pentsatu eta des-pentsatu egiten ditut.

Koldoren bila atera naiz, asteburuetan beti hor egoten baita, gaur izan ezik, bilatu ere hura bilatu dudanez.

Gazte bat mozkorturik eta bere “itsumutila” besterik ez ditut topatu, ni bezain galdurik biak, baina bata ardoagatik eta bestea... auskalo... ahantzuraren sentsazio jasanezinagatik akaso, bizi izanaren / egun osoan bizitzen aritzearen sentsazio honengatik, lehenengo egunetik azkeneraino bizitze asper hau...

Nire bakardadeaz poztu naiz. Eta gutxien espero nuenean nire zorion umila topatu dut. Hortxe zegoen, beti egon den lekuan. Inoiz bilatu ez nuen leku horretan.

Ziur aski hori da asteburu guztietan gertatzen dena, bost mila milioi arimadunen bizitzetan, hurrenez hurren, txirrista batetik irristatuz bezala.

Gaur “Astigarraga” da; agian “San Astigarraga” ere bada (nork jakin), egunik garrantzitsuena, oharkabeenik igarotzen zena: bero-egun bat, neguko egun bat, egun euritsu edo eguzkitsu bat. Edozein egun (gure bizitzako egunik onenak! gure burua – arrunt, *zeharkagarri*, *zaurgarri*– sentitzen genueneko egunak! txepel, gupidagabeki *normalizat* jotzen genituen egun haiek!).

Guzti hau izan gara. Eta hainbeste izanik, gutxi dela iruditu behar... Finean, “nor arraio haizen jakitea” da gaitzena. Horrekin bueltaka ehunka, milaka urte daramatzagu, saiatzearen poderioz

akituta erori arren. Baina zer nahi duzu, “hautsa
 haiz, eta...”.

Egun hau igaroko da, gainerakoak igaro ziren
 bezala. Agian, zapore berri bat utzita; agian,
 gainerako egunetako zaporeaz gozarazita...
 gogaituta... etsita...

Asperduraraino zeharkatutako kaleetan,
 asetzeraino errepikatutako agurretan...

Eta hala eta guztiz ere, ez diogu bilatzeari uzten,
 inoiz ez, bilatzaile petoak gara, horretarako jaiok,
 beste ezertarako ezgai eta denetarako gai.

Gezurra dirudi, herri txiki bat izan eta
 hainbesterako ematea... Paristik hain urrun nola
 gauden... Egia esan, ez genuke harritu beharko: New
 York Astigarragan dago, eta Astigarraga New York-
 en. Hori ulertzen ez duenak, ez du ezer ulertzen.
 Ezertxo ere ez. Ez da iraina; egiarekin antz handia
 duen espejismoa baizik (zer arraio da egia...?).

Urrutiegia iritsi gara... etxe batekin egin dugu
 topo... hiru gela, sukaldea, bainugela... mailegu
 ordainezin bat...

Jarrai beza munduak bere martxa geldiezinarekin.
 Etor daitezela orain konstelazioei buruz, aurkitzeko
 dauden unibertsoei buruz guri hitz egitera!
 espazioaren poesiari buruz! Etor daitezela orain guri
 hitz egitera halako irmotasunez akatu, suntsitu,
 atomizatu ditugun gauzei buruz... Etor daitezela
 orain guri hitz egitera horretaz, juxtu orain
 garrantzirik ez duela, zertaz hitz egin, zertarako...

Batzuetan pentsatzen dut gustatuko litzaidakeela
 hemen bertan lehertzea, inolako arrazoirik gabe hitza
 ukatu zigun adiskideari zaplazteko eder bat ematea,
 arrazoi zutela sinetsi duten guztiei ere beste hainbat
 egitea.

Eta boteretsuki hauskorak direnei, guda guztiak
 galdu zituztenei, beren harrotasun-irrikari eta
 garaipen-goseari utzi zietenei gainezka egiten....

Ez dago astirik atzera begiratzeko. Aukera hori
 egutegian iraungia da. Orain, egun batean bai eta
 hurrengoan ere bai, gure atean joka ari den
 ezerezaren aurrean belaunikatzea besterik ezin dugu
 egin...

Zauria irekita dago. Pasa barrura eta ikus. Hau
 ikuskizuna! Ez dago nanorik, baina bai burutik egina

dagoen jendea; ez dago gorputz-deformaziorik,
baina bai arimakoarenik; ez dago basapiztiarik,
baina bai halakotzat jo daitezkeen gizakiak; ez dago
ezer: ezereza akuilatzen duten, luzatzen duten,
betikotzen duten oroitzapenak, besterik.

Ahantzura izugarri bat dago, inoiz ixten ez den ate
ozeanikoa bezalakoa.

Eta jo dut. Ate hori jo dut. Ate-puta hori jo dut.
Ate hori joka bizitza osoa daramadala uste dut. Eta
ateak bere isiltasunarekin baino ez du erantzuten;
bere letania higuingarriarekin; beste munduko bere
isiltasun zantarrarekin.

Negar egin nahiko nukeen, baina irri-algara ergel
eta huts batekin barre egitea baino ez nuen lortu.
Gezurrezko barre batekin. Nahi izan gabe bilakatu
garen gezurrezkotasunaren isla.

Ez dago errudunik, baina ezta errugaberik ere.
Zigorra pantomima bat baino ez da. Antzoki grekoak
bere ateak zabaltzen ditu, ixten ditu, zabaltzen ditu,
erdizka irekitzen ditu... hemen, Astigarragan, Santio
Egunean, egun ezin ospetsuago honetan (herritarren
erdiak –diotenez– korrika atera dira, badaezpada ere
–dezibelio-kontua–...) Agian hori izango da
sekretua: lirikarako, ez-lirikarako, edozertarako apur
bat gorra izatea...

Ez dago txistularirik; haien ordez, ordea, New
Orleans-eko musikari-talde batek bere uholdeaz
egiten du negar; iratzartzen gaituzte; barregura
ematen digute.

Gero, harri-jasotzaileen ordez, halterofiliako
mutilak datoz, a zer-nolako morroskoak, hormonaz
bapo-bapo eginda! –hauek mutil politikak!–. Barre
egiten dugu.

Eta azkenik, Amazoniako indioak agertzen dira,
super amorrazioz josita, bata arpoia eskuan – bueno,
hori agian Greenpeace-koa zen, *kolokatuta*–.
Zer nahi duzue, nire bizitza osoa halakoxea izan
da: irudi afrodisiakoz, aztoratuz, sasi iraultzailez
betetako amets bat.

“Ikusten duzue Koldo nola barrez lehertzen den?”
Bere arrazoiak izango ditu, noski. Arrazoi onak
izango ditu, bai.

Funtsean, euskaldunok “pentsamendu oneko”
drogazale-aldra polita gara: sagardoa, txakolina,

Arabako Errioxako ardoak, Nafarroako ardo gorriak,
patxaranak, pattarrak... Existentzia osoa daramagu
mozkortzen. Gogoko dugu. Gauzatuak sentiarazten
gaitu horrek. Ez dut asmo txarrez esaten; baizik, egia
hutsa delako.

Baina gaua aurrera doa, eta bertan murgildu behar;
denok egingo dugu hori, nola edo hala.

Batzuk, berriz, ez, ez dira inoiz esnatuko. “Agur
eta ohore zuri”. Berdin dio nor zaren; mundu
honetako gaizkilerik zitalenak hitz horiek merezi
ditu eta; ez bakarrik heroi handiek, miresten ditugun
haiek, baina denek, baita guk ere, okerrenok. Azken
hitz horiek merezi ditugu; agur-hitzak; eraso-hitzak;
ekinaldi-hitzak; hitzak, hitzak, hitzak.

“Aski da!” “ezin dut gehiago!”. Uste dut
horregatik izan zela, kontsumitu egiten genuela;
uste dut horregatik ez genuela geure burua
onartzen, ez genuela ez ezer ez inor onartzen –izan
nahi genuen ezinezko proiektio hura izan ezik. Ezer
ez (komunikabideen bidez erditutako ezerez huts bat
baino ez ginen...).

Esadazu, esadazu zuk, beti ezkutaturik egon zen
egia hura zein zen; badirudi norbaitek haren berri
duela, gutxien espero genuen hark, hantxe zegoen
beste hark, gure ondoan isilik beti egoten zenak,
pixka bat ergela zirudienak.

Eta hura zen, hura BERA zen hain zuzen egia hori
ezagutzen zuen bakarra, bere baitan zeukana eta guk
urrutitik ere imajinatzerik ez genuena (baina nork
arraio imajinatu nahi zuen ezer?)...

Irudimenez eta sentitzeko gogoz eta gure burua ez-
sentitzeko irrikaz ongi hornituta genbiltzan (agian
azken horretaz bereziki...).

Ezagutzen ez dugun txo hau izatea gustatzen
zaigu. Gustatzen zaigu inor ez izatea eta aldi berean
denak izatea eta ez izatea inor. Gustatzen zaigu. Ezin
dugu ekidin. Pentsatzen dut horregatik garela
zoritxarrekoak.

Zorionik ezak gure atea egunero jotzen duen deia
da. Egunero deitzen du. Eta guk ahal den guztia
egiten dugu hari atea ez irekitzeko. Baina haragia
ahula da. Eta zer da burmuina... haragia, ahulezi
hutsa baizik...

Bai, badakit Leitza aldean gure metodoekin ados ez daudela, baina bueno, bakoitza bere zoroak bizi du... (harrapa ezak/n).

Benetan, nire iritziz, honen ostean betiko botako naute Elkartetik, Kolektibotik, eta zorte apur batekin, baita Herrialdetik ere (gutxiagok ere on egin beharko!).

Hau Eivissa (Ibiza) ez bada, orduan Astigarraga da. Jendeak Eivissara joaten zenbat sos gastatzen dituen pentsatzen dudan bakoitzean, sos horiek Astigarragara etortzeko xahutu beharrean...

Ez naiz harritzen herriko bidaia agentzia bakarrak pertsianak betiko ixteaz. Nik, egia esan, gauza bera egingo nuke. Eta horrela, bide batez, langabeziara joango nintzateke alditxo baterako, osteratxo bat egitera edo.

Bidenabar, asteburua Grezian pasatzera joatea baino askoz hobea dena, eta batera eta bestera ibili beharrik gabe, eta fotografiatzeko harri-pusketa askoz gutxiagorekin, eta zure pasaporte partekatu beharreko askoz ergel gutxiagorekin ere.

Izan ere, denek nahi dute klasikoak izan, baita greziera dinosauruekin batera iraungitako hizkuntza bat izan ote zen ez dakitenek ere...

Poema honek oraindik zerbait eman dezake; nire besapeko usain txarragatik dakit hori (axolarik emango ez dizula espero dut).

Jende ulerkorra beti nabarmentzen da bere egonarriagatik. Edo bere diru-zorroagatik (oso antzekoak dira biak).

A, zeinen zaila den batek bere burua topatzea. Labirinto bat da. Bizitza. Baten bizitza. Besteena, zer esanik ez...

Gustatuko litzaiguke gure lagunik onena izan zenari zera esatea: "Guk ez genian hire neskarekin larrutan egin". Izan ere, hura izan baitzen gurekin larrutan egin zuena. *Aprobetxategi halakoa!*
Manipulatzaille apetatsua!

Tira, gaua hegan atera da... Begiratu baino ez dut egiten. Mitoa nola apurtzen den, edo nola berregiten den. Ongi dago gauzek behar dutena izatea. Horrexegatik ez du zentzurik ez homosexualitateak ez heterosexualitateak; txanpon beraren bi aldeak baino ez dira eta. "Seme-alabak, ordea...?" galde

egiten du betiko lotsagabeak. Bada, ezer ez. Hortxe daude. Beren aitaren ereduari ez jarraitzeko prest (arrazoi –onen– bat izango dute horretarako).

Gauerdiko hamabi eta erdiak. Eta hementxe segitzen dugu. Ezertan ez. Afera hau ez dabil. Geldi dago. Norbaitek zerbait noiz egingo zain gaudela uste dut. Denok. Beraz, inork ez du ezer egiten. Hori ongi dago. Ez egitea ezer. Zerbait egiteko modu bat da-eta. Agian baliteke une honetan egin daitekeen gauzarik iraultzaileena hori bera izatea: ez egitea ezer. Erljio guztien hondarra edo aztarna dena. Ez egitea ezer. Ezer egin behar ez dela sentitzea. Ezta zure burua arrastaka eramaten uztea ere.

Ez dugu jakin nahi nor arraio garen! Ez zaigu axola! Inkesta horiek besteentzat uzten ditugu, hain interesatuta badaude...

Itxoin, erasokor jartzen ari gara. Hori ez dago ondo. Mundua berez bortitza, erasokorra da. Baina gu, tximinook, txinpantzeok, ez. Ez gara bortitzak.

Ez. Baketsuak gara. Bananak, txokolatinak, intxaurrak eta jogurt deskrematuak gustatzen zaizkigu.

Txu egin nahi didazu? Eta zergatik ez duzu egiten?

Zerk eragozten dizu? Ez naiz ni izango!

Jainkoarren!! Apaiz pedofilo eredugarriak eztanda egin du!!! Zertarako balio du existentzia batek gure zerbitzuan egon ez baldin bada!!!! Norbaitek erantzun diezadala!!!! Ez ote dago inor espaziosideral-nazkagarri-arraio honetan ala?.....!!!!

Bakarrrik ote geunden besterik ez genuen jakin nahi. Euskal Herri osoan gu bakarrrik geratzen ote ginen! Horregatik bidali dugu e-mail masibo hau. Gure ahotsa berriro igorriko digun oihartzunetik zer-edo-zer topatzen al genuen ikusteko. Ez du askorik balio (gure ahotsak). Baina, eta zerk balio du zerbait hemen behean (esan zuen Dantek).

Gure maitalearen hitzak ahoskatu genituen: “Petri”, “Gartzi”, “Camp Vieux”... Eta orduan, elfo zeltiberiarrek gure etxea inbaditu zuten, gure gelan trumilka sartu ziren, erantzuna hori zen, aspalditik itxoiten genuen erantzuna, une handia iritsita zegoen seinale...

Baina ez dakit, ez dakit... nola nahi duzu guk ezer jakitea... nor uste duzu garela... oro-ja-kin-txu batzuk ala zer arraio... Ondraduak ere ez ginen-eta... Betiko gauza ikaragarri hori ginen, beti gure atzetik ibilitako gauza hura (mundu guztiari gertatu bezala, nik uste), eta bai, egia da, gure zorigaiztoak dirutza bat balio izatea gustatuko zitzaigukeen, txoro hostia harena bezalaxe, ***kowsky kaka-putarena alegia...

“Igo ezazu intserzio-puntua lerro bat”. Windows-en aholkua da. Ni zu banintz, ez nuke pepelerdoarena egiten jarraituko, eta Osaba Windows-i kasu egingo nioke. Zu langabezian uzteko gauza da eta. Pirataz mozorrotuta harrapatzen bazaitu...

Baina ez gaitezen narrasak izan, eta egin diezaiogun kontu benetan axola duenari: minigona noraino iristen zaion, “prima donnak” harrizko begiradarik bota digun, diskotekan guretzat bakarrik dantza egiten duen, edo denentzat (ohi bezala). Gabirai-begia eduki beharra dago, harrapari-begia, ergel-begia...

“Igo ezazu intserzio-puntua lerro bat”. Kopetaraino sentitzen hasia naiz hainbeste aholkuez, Windows zerri honetaz... “Lerroa gora”. Militarren ukitua du Windows-ek. “Lerroa gora” “Igo ezazu intserzio-puntua”.

Orain, hemen, Astigarragan, “Box”a (amerikar martxoso-liberala) azaltzen da, eta ederra egiten dugu, eta Mikel Laboa 0,50 €ko izozki-malapartatu baten antzera urtzen da, Edurne –gure Edurne maitea, gure Edurne itzulezina– inoiz existitu izan ez balitz bezala, mundua azken momentuan agertzen den norbait/zerbait izango balitz bezala, xirmi-xarma agertu/desagertu ere, marketing-kontua balitz bezala edo, saltzeko, zu saltzeko, hura (haren oroitzapena! preziorik ez zuen haren gomuta!) saltzeko.

Utz dezagun. Ez dugu bide horretatik jarraitu nahi. Landetan ibiltzea bezalakoa da. Pinudiak besterik ez dago. Eta inoiz ez zaituzte inora eramaten, pinuz betetako beste leku batera ez bada. Ez naiz harritzen haizeak pinu guztiak eraitsi izanaz. Itsusi mortalak ziren eta. Supermerkatu bat bezain itsusiak. Hain

homogeneoak...

Goizeko orduko txikiak. Eta ez dago inor. Ez dago lekukorik. Zu bakarrik zaude. Zu. Eta zure mamuak. Zu zeu espektro bat zara. Zutaz gogoratzen duzuna.

Behin zuretzat “garrantzitsua” izan zena.

“Lerroa gora” “Igo ezazu intserzio-puntua”.

Hilda gaude. Ustelduta gaude. Nekatuta gaude.

Gaude. Operatuta gaude. Belaun batetik. Gure 48 urteetan inork ez zuen inoiz INOIZ eskua sartu gure gorputzean. Orain, ordea, ezin gauza bera esan. Hau bai dela birjintasuna galtzea! Aldiz, eskertuta gaude.

Esker oneko eta guzti gaude.

Berriz hastera goaz. Hutsetik ez baina. Zeraz azpitik baizik. Super poema bat euskaraz idaztera gindoazela uste genuen; baina ez. Gure beltzari pasatu beharko diogu. Agian ez du gaizki hartuko. Biziki maite dugu. Ia-ia gu bezainbat. Tamalez, bera ezin dugu masturbatu –hori egitea gustatuko balitzaigu ere–.

Izugarri gogoko dugu kanpaiak jotzea. Ez genizuen inoiz esan? Hau bai arraroa. Ahaztuko zitzaigun...

“Gora lerroa” “Igo ezazu intserzio-puntua lerro bat”.

Hau aktekin jardutea baino hobea da. Onartu beharra daukat, ordea: ez gaitu Independence Day-ra gehiago hurbilduko, baina... edo agian bai...?

Auskalo. Egia esan, Kontinentearen –Kontinente

Osoaren– independentzia aldarrikatzen dut.

Kontinente batena. Ez dakit zeinena. Guri bost.

“Refanfunflar” aditzak erdaraz badakizue zer esan nahi duen, ezta?

Eskerrik asko, Rufo, barre egiteagatik.

Goizaldeko 1.15 h. Apolo I.ak bere bidari jarraitzen dio, Ilargirantz. Eta oraindik geratzen zaigu Petri botila erdia. Dena ez dago galdua beraz.

Ia dena, bai. Baina dena ez.

Orain badakit nor naizen!!!! oihu egin zuen mari-pedanteak! Hor zegoen gakoa, ezta? Jakin behar denok nor arraio ginen. Nor kaka puta ginen. Seme-baten-ama-zèn eta gure irakasle-izandako-harekin-oheratzen-zèn-txo hura bera ginen; bere lagunik-onenaren-neskarekin-ohean-amaitu-zuèn txo hura ginen. Bere arduretatik-beti-iheska-ibiltzen-zèn-txo hura bera ginen.

“Gora lerroa”. “Igo ezazu intserzio-puntua lerro bat”.

Nazkatuta nago programa inpertinente honetaz. Nork arraio uste du dela uneoro-uneoro esateko ez dakit zenbat-lerro-gora egin behar ditugun... Lezioa ikasi behar dugu. Baina, zein lezio? Gauza guztiei uko egitekoa? Familia-bizitzari uko egin? Lehena, traumatikoa izan liteke; bigarrena, ez hainbeste.

Edan dugu. Aspalditik ez genuen hainbeste edaten. Uste dut arazoa hor dagoela: edatean ez, baizik hain luzarotik ezer ez edatean. Denbora luzeegia edan gabe pasatzen duen jendea uste dut nahitaez pepelerdotu egiten dela. Egiaztatu gabeko berrespen bat baino ez da; zera... intuizio hutsa, mesfidantza moduko bat edo... Nik al dakit.

Sexua kaka putza bat da. “Kito hagoenean, azken aterpetxea duk”. Pepelerdoen aterpea. Ideiaz husturik gaudenean, sexura jotzen dugu; esateko, kontatzeko, partekatzeko ezertxo ere ez daukagunean, sexura jotzen dugu.

Eta zu, nor zara zu? Eta, batez ere, zergatik tematzen zara hori izaten?

Une honetan, nire bizitzan dagoen gauzarik kezagarriena Petri botilaren etiketa hau da, mugitu egiten da-eta, ez dago ongi itsatsita, edo bai, badago, baina busti egin da, edo...

Goizaldeko 1,30 h. Nolatan azalduko genieke hau gure seme-alabei? Ulertuko lukete? Noraino uler daiteke...?

Kanpora begira jartzen gara. Eta ez dugu ezer ikusten. Petri botila izan ezik. Kartel-gizonak gara, iragarki-gizonak. Geroago pasatuko gara Petritik gure komisioa jasotzera. Beharbada ez zaie gustatuko gure lana (beharbada ezta guri ere haiena, orduan). Auskalo.

Kate bat gara. Lapurturiko bizikleta-kate bat. Eta lapurrak, edo agian “lapurra” ezagutzen duenak, “sorry” esaten digu. Eta guk baietz esaten diogu, “hementxe duk gure bizikleta, Astigarragan, gure badaezpadako herri maitagarriari inguratzen zaizkion bide gorrietan harri bihurtuta (*har ezak sastakada hori! eta izorra hadi! eta hazkura baduk, arindu ezak hazkurea marmoka-korda pikante batez!*)

*eta izorra hadi gehiago! kaka-putza! ipurdi-musu!
pentsu-lehor hori!)*...

Ongi, abesti hau gutxienez Patty Smith-ena da
(“Patas-Flacas” gazteleraz).

Batzuetan iruditzen zait Super López I.ak ere
(“Lehendakari Xuhurra” ezinenez) barre egiten
duela nire txantxen lepotik, bere urrezko
espartinekin, zerataz...

Herriko jaiak dira, Astigarragako jaiak. Iaz testu
bat eskatu ziguten. Agian lezioa ikasiko zuten, eta
aurten ez dira horren xaloak izango. Auskalo, baina
izango balira, testu berria prest daukagu, jaiak
zabalduko dituen pregoia, zerbait pentsaezina,
herriko gogamen zintzo guztiak ustekabean
harrapatuko dituen zerbait, mugarri bat (hiru laurden
vodka eta laurden bat KOLA) besterik faltako ez
zaiona historiaurreko monumentu izendatua izateko.

Ongi dago, “hostias putas” bezain ongi.

Udalbatza nire iritzi berekoa izatea gustatuko
litzaiguke, nahiz-eta aldi berean gustatuko
litzaigukeen guzti honek (pixka bat sikiera)
atsekabetuko balitu, baina ez dakit oso ondo
zergatik, bitxia da, oso bitxia da, oso-oso bitxia da...

Um... Holmes... Um...

Hilabeteak joan zaizkigu ezer idatzi gabe. Eta
orain gure familiak astebete osorako kanpora joanak
direla, idazteari ekiten diogu. Bitxia da. Oso bitxia
da. Um... Holmes... Um...

Eta orain, hain zuzen, zerbait gertatzera doan unea
da... Ezer ez. Hori da denok zain genuen unea. Petri-
une bat. XXI. mendeko sagardo-une bat (ea
hurrengo urtean gonbidatzen gaituzten esaldi
ospetsua marruskatzera: “Hau da aurtengo patata-
tortillue”). Baina ez dut uste horren pardilloak
izango direnik.

Gainera, ez gara horren txukunak, baina ezta
horren baldarrak ere. Um... Holmes... Um...

Gauzen neurria gordetzen jakitean datza kontua.

***ri esan ez izana besterik ez zait damu.

Ezerengatik ez baina, soil-soilik pozik gera zedin.

Hil baino lehen. Pluf egin baino lehen. Ez zen
meteoritorik izan. Ez zen kometarik izan. Ebaki bat
izan zen. Edo kafe huts bat. Kolonbiako kafe bat!

Auskalo.

Orain... pendejo batzuk gara. Onartzen dugu.
Musikaren atzetik galtzen gara (poesiarekin antzik
handiena duena musika da-eta).

Musika entzuten dugunean, zera bihurtzen gara...
Ez dakit zer bihurtzen garen... Um... Holmes... Um...

Nahiago dugu orain ez esatea ezer... Baina gogoko
dugu, hala ere, zera esatea... Um... Holmes... Um...

Eta orain, hitz egin dezagun maitasunari buruz.
Postetxeko neska funtzionarioei buruz alegia, haiek
beti izan baitziren gure ahulezia; edo *Gauari* buruz
hitz egin dezagun (Puaj!!), zeinak beti sartu baitigu
ikara bizia (Puaj!! puajj!!); hitz egin dezagun
oroitzapen musikalei buruz (Puajj!!Puajj!!Pauajj!!),
eta zerari buruz...

Ongi da, ongi da. Ados gaude. Gaiez aldatu eta
kito. Ulertu dugu...

Ez digu inork deitzen, eta ongi iruditzen zaigu;
denek deitzen digute, eta hori ere oso ongi iruditzen
zaigu.

Egia esateko, denek gauza bera nahi dute, guk
uste: konpromiso argi eta garbi bat. Eta hori da hain
zuzen gugandik lortuko duten azken gauza.

Sentitzen dut, benetan, itxita dago... itzuli
geroxeago...

Morsea. Morse hizkera. “Kaka-zaharra/kaka-
zaharra”. “Barka-Barka- Barka”. Zure hitzek
hunkitzen gaituzte.

“*Gonbidatzen al gaituzu asteburua Eivissan
igarotzera?*” Eivissan? “*Asteburua Eivissan
igarotzera gu gonbidatzeko arrazoirik ba ote duzu?*”

Eivissan? Eivissan? Aizak, aizak, aditzen al duk?
Johans? Hi al haiz? Johans? Arrazoi bat ote haiz?
Hau eromena. Ez dugu zure izena gogoratzen. Ezta
zera ere... Baina izugarri erlijiosoa zen anaia bat
bazenuela gogoratzen dugu, apaiza zen... Gaur egun
pedofilo arriskutsua ez izatea espero dugu... Hau da,
armairutik ateratzen ausartu ez den homosexual
bat... (*gu ele modelno izan nahi dugu*) Zera espero
dugu...

Beranduegi al da ingelesez ikasteko? “Baina, zer
zegoen helburu horren atzean?” Eta oraintxe da
protagonistak oihuka hasten denean: “*Orain ulertzen
dut dena! Orain ulertzen dut dena!*”. Pedante alua...
Izan ere, protagonistak egiatan beste hau oihukatu

behar zuen: “Orain bai ez dudala tutik ere ulertzen!
Orain bai ez dudala tutik ere ulertzen!”. Filmaren
unerik onena zen. Hau da, telebista itzali edo zine-
aretotik hanka egitea erabakitzen zenuenean; edo
zera ere erabakitzen zenuenean...

Petri botila amaitu da eta beraz ez dago arrazoirik
Mr. Hemingway-arena egiten jarraitzeko (horrela
idatziko ote da?). Etor dadila *** alderdi horretaz
argi pixka bat ematera (bera ere aitzurra hartuta ez
badago, behintzat).

Goizeko ordu-biak eta hamar dira. Bizirik gaude.
Itxuraz bakarrik? Gure naipeak *dantzan* jarri besterik
ez dugu nahi... Gustatzen zaigu bakarrik sentitzea...

Gustatzen zaigu kantuz ari den ahots bat garela
irudikatzea...

Agortu da erregaia. Orain mass-mediak dira gure
ordez hitz egingo dutenak. Balio al du bai ala ez...?
Zarata da ala ez da zarata? Hor dago iltzea.

Gainerakoa, huskeriak.

Azken albistea. Azken erritmoa. Hemen.

Astigarragan. Kalifornian. Kanadan.

Nortasun jakina islatu nahi duen soinu bat entzuten
da... Mozkortuta omen gaude... Zeruaz hitz egiten
digu... maitatu nahi genuen zeru batez... begirada
jarrita geneukan zeru batez... eta maiteminduta
geunden garaiez... eta ezin garela bizi zu gabe...
maite zaitugu... ulertu behar gaituzu... pila-pila
patata-tortilla, bai, maitea... baietz, ezetz...
begiratzen diguzu... miresten zaitugu... ez gaitzazu
utz... begira iezaguzu... eup! hemen gaudela... ezin
dugu jasan zuk gu ez maitatzea... maite gaituzula..
behar zaitugula.. ez gaitzazu utz... sentitu bezala
diotsugu... ez gaitzazu utz... hemen... Astigarragan...

Dezibelioak... Erromantizismoa... hirekin amets
egin... utz iezaguzu zure ezpainak sentitzen... hemen,

Astigarragan, utz iezaguzu zu maitatzen, zu
gorrotatzen, zu [berriro] gorrotatzen, zure beharra
izaten, hemen, Astigarragan, a ze polita zu gu
maitatzea, a ze polita zuk ere gu maiteko bagintuzu
pixka bat sikiera, oi Borges, oi Panpero hiltzailea,
hator hona, Barrabas, hator hona eta maita itzak
herriko neskatxa maiteak hik dakian bezala, hator
hona, Astigarragara, hik ere maiteko haute, hiri ere
(hutsik dagoen) hire arima hori lapurtuko diate,

neskatxak horretarako pronto daude-eta, hemen, hi,
Astigarragan... Ibil hadi kemenez, esaiek maite
dituala, hemen, Astigarragan, hik, zera, ez zekiagu
ba...

Bizitza beti aldatzen da, zeruak beti ditu mila
kolore, baina zu, zu beti zara betikoa, betikoa, eta
zugandik hain urrun gaude...

Nola adieraz nezake... Zure barruan dagoen leku
bat da, baina zu zeure ametsa lortzeko gauza zara;
gu, berriz, duela urte asko izan genuen amets hartan
proiektaturiko itzal bat baino ez gara, nerabe batzuk
baino ez ginenekoan, badakizu, nola azalduko
dizut...

Zu orain amets bat zara, amets hortero bat,
errealitate bihurtua...

Desbidera zaitetz, ez zaitetz errealitate egin, amets-
arraio hori, amets-kaka-putz hori, ez zaitetz
errealitate egin; errealitate bihurturiko amesgaizto
erlijiosoa bezalakoa zara, ez nago zutaz interesatuta,
zakil erre bat zara, modaz pasatutako kaka-putza bat
zara, inoiz izan nahi izan ez dudana zara, sentitzen
dut, utz nazazu, utz nazazu, utz nazazu... Erantzun
bat izan nahi dugu... baina, erantzun bat norentzat,
Lukas Ahatearentzat, ohiko ergelarentzat, galdera-
putarik bat ere inoiz egin ez zuenarentzako erantzun
bat... Izan ere!

Orain une ona izango litzateke zera esateko: “Gu
bagoaz”. Bai, baina, “nora?”. Urte mordo polita
daukagu. Ez da zaila igartzea honek nora
garamatzen...

Hortaz... musika garaikide osoa lakio bat da, non
erortzen garen, non uzten dugun geure aztarna –
geure-geurea dugun– hatz-marka hau... Baina, zer da
hatz-marka bat...?

Kijera. Bera etorri da erantzun bat ematera, gauzak
bere tokian uztera. Haren gorputza bala batek
zeharkatua. Horra hor erantzun bat. Gu ere erantzun
bat gara. Eta Iñaki Kijera. Bera ere erantzun bat da.
Ez da “erantzuna”, erantzun bat baizik. Han zegoen.

Kale erdian. Inork ezin zion lagundu. Sartu zioten
balaren barruan haren epaia idatzita zegoen.
Lehenago ere beste batzuekin gertatu bezala. Orduan
berriz gertatu zen gauza bera, hasiera-hasieratik,
beste bala bat (edo berbera izan ote zen) bere bidea

egin zuena, hortxe, Bulebarrean, edo Askatasunaren hiribidean (“Avenida de *Espainia*”-n lehen). Gogoan dut. Bai. Gogoan dut.

Ongi da. Gau hau ez dago horren gaizki. Zerbait utzi du. Zerbait ekarri du. Oroitzapen bat. Hitz-segida bat. Ongi... ongi da, bai... Um... Holmes... Um...